

TOKIKOM

begitu

2021eko urri bigarrenaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.eus

369

Ondarearen Europako Jardunaldiak hilaren 9an Zeanurin

12. orrialdea

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako saio bat Igorren jokatu da

Urri bigarrenaren 9an, 17:00etan, izango da Lasarte Aretuan. Han, Ander Ucelay Aristi, Garazi Navarro Ugarteburu, Gorka Pagonabarraga Agoria, Ibai Amillategi Ormaetxebarria, Julen Erezuma Arzanegi eta Mikel Goirieta Larrazabal neurtuko dira. **13. orrialdea**



"Tubi" txapelkun Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketan

11. orrialdea

Onditz Iturbe bigarren Gorbeia Suzien mendi lasterketan

Hasikeran lider jarri zan arraterra eta oindino lehenengo postuan zala zapaldu eban Gorbeia tontorra. Gero, Denisa Dragomir mendi lasterketari profesional errumaniarrak hartu eutsan aurea. Denisa Dargomirrek irabazi eban lasterketea, Onditz Iturbek egin eban bigarren eta Lide Urrestarazuk osotu eban andrazkoen podiuma. Gizonezkoetan barriz, Zaid Ait Malek-ek irabazi eban karrera, Ander Iñarrak egin eban bigarren eta Ben Kimtaik, hirugarren.

Aurten, Gorbeia Suzien puntuagarria izan da Skyrunner World Series eta Golden Trail National Series-en. Munduko mendi lasterketari onenetako asko egon ziran Zeanurin. **11. orrialdea**



Deltebre argazkiak irabazi dau BEGITUREN Lehiaketea

Nagore Agirrebeitia Fontetxa Areatzakoak irabazi dau aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketea. **8. eta 9. orrialdeak**



ARTEA

Maurizia Aldeiturriaga ardatz hartuta jaia eratu dau Gorbeialdek

Urri bigarrenaren 16an izango da. Ekitaldia euskal tradizioaren arlo nagusi bitan oinarrituko da: gastronomian eta kulturean. Merkadua, *Izan bagara* ikuskizuna, eta Artea eta Maurizia gaitzat hartutako bisita gidatu bi dagoz programauta egun horretarako. **5. orrialdea**

ZEANURI

Norberaren biografia eta irakurketa feminista tailerrak

Urri bigarrenaren 7an hasi eta abenduan amaituko da norberaren biografiaren hausnarketea helburu daukan *Deskubritu* gaitzean *ahalduntzearen bidean* tailerrak. *Irakurketa feminista* tailerra Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* liburuaran gainean izango da hilaren 15ean eta egilea bertan izango da. **7. orrialdea**

ARRATIA

Ostalaritzako ordutegiak luzatu eta aforoak handitu dira


Urri lehenengoaren 18an indarrean sartu zan dekretuak, jarduerak goizaldeko hirurak arte luzatutea, diskotekak eta gaueko aisialdiko establezimenduak zabalduetea eta aforo batzuk handitzea baimentzen dau. Diskotekak be zabaldu dira, baina mahaietan konsumidua behar da eta mosukoa jantzita jantzatu.

Barrukaldeetan egiten diran museoetara, erakusketa aretoetara, jolas zentroetara eta turismo zentroetarako bisitak 20 pertsonara arte handitzea ebatzi da. Barruko instalazioetako kirol jardueretan, 16 pertsona. **7. orrialdea**

GARENA

Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant



EKIN 30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

Literatura txokoa

HEMENDIK

Handik eta hemendik, 50 istorio eder ditu liburu honek. Katalogo itxura daukan arren, hori baino askoz gehiago da. Badira, aukeratuak berrogeta hamar objektuen artean desagertu diran batzuk, badira punta-puntako teknologia darabilenak eta badira egunerokotasunean ezinbesteko bihurtu jakuzanak. Hemendik egitasmoak Euskal Herriko 50 objektu ikonikoren istorioak barnebiltzen dauz, kategoriazko argazki eta diseinuagaz.

Betidanik, objektu bat diseinetako, egin, berregin, begiratu, barritu, hobetu, egokitu, asmatu, arriskatu egin behar izan da. Sormen prozesuaren bide luze hori da interesau jakiena egileei. Bertan topauko doguz, esaterako, txikitero edalontzia, sancheskia,



espartinak edo Bilboko harlosa zelan sortu eta ekoizten diran. Baina baita hainbat marka komertzialen inguruko informazioa edo etnografia zipiritinak. Txapelatik armagintzara, oihalgintzatik bizikletetara, Hemendik alkarteak landutako liburu honek bidai xume besteko erakargarria

dakarsku. Jean Louis Irtzokik gidatutako lantaldearen lan ederra online be bisitatu leiteke, www.hemendik.eu webgunean. Ikusi beharko lanak jarraipena dauan ala ez, gustura irakurriko gendukezalako beste berrogeta hamar asmakizunen kondaira.

@fantomastxiki



Hemendik

Hemendik alkartea (Baiona), 2020

444 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehenen. 27tik urri bi. 3ra

Rodríguez Martínez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 4tik 10era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 11tik 17ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarriotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eus

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunetan orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik.

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@begitu.eus

Webgunea: www.begitu.eus

Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarrizaga.

Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

E-posta: beazpiri@begitu.eus

Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Telefonoa: 94 631 73 14

eta 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Banaketea: Iraia Herrero (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua

(Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia

Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Irtxe Arribas

(Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituAldizkaria). **Twitter:** @BegituEus. **Instagram:** @begitu.eus

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



ZEURE BERBEA

Irakurteak aske egingo gaitu, eta ze zaila dan Igorren!

Aspalditik nengoa zuzendariari gutun hau idazteko, eta badakit ni bezalako Igorreko liburutegiko beste erabiltzaile batzuek, kezka eta kexa bardina edo antzekoa daukiela.

Konfinamentu garaian, etxean denpora luzean egon ginan eta irakurtea gustetan jakunok denpora gehiago egon gura genduan liburu bat esku artean. Ha-ta guzti be, Igorreko Liburutegitik liburu bat hartu edo itzuli gura zenduan bakotxean ginkana baten modukoa zan. Ez naz luzatuko zelan egin behar zan kontetan, baina ezarritako prozedureak berak ez eban errazten lana. Atzanean, liburutegitik ez hartzea ebatzi neban.

Konfinamentutik atera ginanean, espero neban liburutegira hurreratzea eta liburuen artean zein gura neban aukeratzea, baina aukera hori ez egoan. Entzun dodanagaitik urri bigarrenera arte holan egongo gara. Espero dot, urri bigarrenetik aurrera, normaltasun batez joan eta

egon ahal izatea liburutegian, bada garaia!

Danok dakigun moduan, COVID-19aren kudeaketea ez da bape be erraza izan. Ha-ta guzti be, beste udalerriko liburutegiek, konfinamentuan eta momentu latzenetan, liburuak etxeetan presente egoteko, erraztasun asko ipini ebezan, zerbitzu publiko hobe emonaz eta jente gehiagori irakurketearen plazerra errazago eginez.

PILI ÁLVAREZ MOLÉS

Bihotzagaz pentsau

Seguruenik ez zarie enterau! Abuztuan onartu da eta normalean abuztuan onartzen diran gauzak... tranpea dira beti! Ekumuseoko zelai osoa bota gura dabe eta bere orde musikari buruzko museo bat sortuko dabe.

Sano handia, landa osoa okupauko dau. Maite dot musikea baina zelai hori herriko altxorra da. Arrastiro, umeak jolasteko leku

aproposena da, eskolatik hur, berdea dan lekuri onena. Gura badozue musikari buruzko museo egin, ba egin. Gura badozue miloe bat euro gastau horretan, ba bueno... Baina ez apurtu gehien erabilten dogun lekua. Eta apurtu ezker, eregi herriarentzako zozer: kanpoko-zinemea, kulunka erabilgarriago batzuk, ugerlekuren bat... ez dakit!

Museo bi egon dira herrian eta biak usteldu dira, natura daukagu eta hori gura dogu hemen bizi garenok. Zertarako museo? 4 kanpoztar etorteko noizean behin? Horretarako igual hobeto da arrastiro han gagozanoi galdetzea zer gura dogun. Eta zozer eregi gura izan ezker, ba industrialdean edota batzoki alboan hutsik dagoan eraikinean edota Ekumuseoan bertan baina ezer bota barik, eraikina hutsik dago.

Ez dakit, baina mesedez, obrak hasi baino lehen bihotzagaz pentsau apur bat, mesedez. Benetan, mesedez! Eta benetan, asko maite dot musikea!

AMAIA RUIZ

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA



ILLART GUMUZIO

Igorreko alkatea eta UEMako zuzendaritza batzordeko kidea

Euskerea lehenesteko hizkuntza politikea, ezinbestekoa

Joshua Fishman soziolinguista estadubatuarrak *breathing space* kontzeptua akuilatu ondoren, Mikel Zalvide hizkuntzari eta euskaltzainak ekarri eban euskerara, eta orduan hasi ginan amasgunez berba egiten. Fishmanen arabera, hizkuntza batek iraungo bada ezinbestekoak ditu amasguneak, inguru horreetan garatuko da-eta nasai eta modu naturalean, beste hizkuntzen mehatxu barik.

Holan, euskerea bizibarrizteko amasguneak zaintzea, babestea eta garatzea behar-beharrezkoa dala eretxita, 1991n Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea sortu eban 17 udalek. Gaur egun 90 udal dira UEMako kide, eta guztien artean 450.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osotuten dabe. Tartean gagoz Arratiako bost herri be: Arantzazu, Areatza, Artea, Dima eta Igorre.

Udalak eta udalerriak euskalduntzeko hamaika ekimen eta lan egiteaz gainera, udalerri euskaldunak zaintzeko eta garatzeko ikerketea be sustatu dau UEMak atzen urteotan, hainbat eragilegaz, unibersidadeagaz eta beste zenbait erakunde publikogaz alkarlanean. Lurralde eta Hizkuntza jardunaldiak dira horren lekuko, eta hainbat urtez jardunaldi horreetan hausnartutakoari bide emonez, ondorioei heldu eta udalerri euskaldunak berriaz zaintzeko bitartekoak be sortu dira atzen urteotan. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE), esaterako. Horren arabera, edozein proiektuk herri

baten hizkuntza ohituretan daukan eragina aztertzea ezinbestekoa da eta, behar balitz, baita neurri zuzentzaileak hartzea be.

Euskalgintzeak, unibersidadeak eta erakunde publikoek UEMAgaz batera egindako lanaren ostean, Eusko Jaurlaritzak udalerrri euskaldunak zaintzeko beharrari lege izakerea emon eutsan, eta UEMak urte askoan aldarrikatutakoa bildu eban 2016an onartutako Udal Legean. 2019an, barriz, Udal Legea garatzeko dekretua argitaratu eban, hainbat kontu zehaztuz eta udalei hizkuntza politika garatzeko eskubidea legez aitortuz, euskerea bizibarrizteko udalen ekinbideei aterpe juridikoa emonaz. Ildo horretan, UEMA eta Eusko Jaurlaritza alkarlanean dabiz atzen urteotan, udalei Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko ikastaroak eskainiz edo-eta amasguneen garrantzia jentarteratzeko kanpainak alkarregeginaz, besteak beste.

Vox alderdi ultraeskoitiarrak, ordea, helegitea aurkeztu eban Udal Legea garatzeko 179/2019 dekreturen aurka, eta Udal Legearen aurka ekiteko be eskatu eutsen epailei. Urri lehenengoaren 13an heldu zan EAEko Auzitegi Nagusiaren autoa, Voxeri errazioa emonaz eta dekretuaren artikulatu batzuk Espainiako Konstituzioaren aurkakoak izan daitezkeza ebatziz, "gaztelania gitxietsi" egiten dabela argudiatuta. Horren arabera, udalek ezin dabe euskerea lehenetsi edota euskera hutsean aritu, eta baztertu beharrekoa da urte askoan UEMak eta hainbat udalerri euskaldunek izandako jarduera eredugarria.

Epaia larria da, zelan ez, euskerea ezinbestean gaztelerearen itzalera kondenetan daualako eta hizkuntza ofizial bien bardintasuna aldarikatzen daualako. Bardintasunetik, ordea, ez jako sekula parekidetasunik helduko euskerari. Euskerea hizkuntza jazarria, ezabatua eta debekatua izan dalako, eta gaur egungo erderen erauntsipean, bizibarrizteko baldin bada, ezinbestekoa dau euskerea lehenetsiko dauan hizkuntza politika aurrerakoa. UEMak eta udalerri euskaldunak urte askoan egindako bideak emon ditu emaitzak, eta ha-ta guzti be egoera kezagarria da, erdaren erauntsia etenik bakoa eta egiturazkoa da-eta. Beraz, udalerri euskaldunen bidea eta eredia zabaltzeko ordua da, eta ez atzera egitekoa.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Institututik urtenda, Aner eta Leire liburu-dendara joan dira, ikasturterako behar dituezan liburuak erostera. Baina, liburuak baino gehiago, dirua gastetako beste zozer daukie buruan.

Leire: Apunteakaz nehikoa ez, ganera liburuek erosi beha juzek!
Aner: Erreferentziako materiala eukiteko dona, neskaxie!
"Kaparra" dixit!

Leire: Ta Maitane? Zegeiti ez dok agertu?

Aner: Eztona tertzioz heltzean dan horreitakoa...

Leire: Arrazoia dekok, bai... Tirok, gu geurera.

Aner: Hementxe jekoan zerrendea...

Leire: Aiiii! Gureko ñeukek dirue beste zozetan gastau!

Aner: Beitiñe zelango prezioak! Holangorik!

Leire: Ikusi dok? Bai, prezio horretan gurao joat...

Aner: Parrandan gastau, ez ba?

Leire: Elegante ibiliko gintokozak, gaztetxean gaupasea eiteko nehikoa!

Aner: Hao isilik hao! Hik eztekona erremediorik.

Leire: Eskerrak aurton amaitan dogun!

Aner: Horretarako, arean behintzet ikisi behako june.

Leire: Kitu, komikien karrajure ñoak.

Aner: Ta liburuek?

Leire: Joai ta hik erosizek, aurreragoan eskatuko doazat.

Aner: Esatea be...

Leire: Egoai isilik! Igez "Txapas"en apunteak neuk pasau neusan ta!

Aner: Hoa ba behingoarren! Ostantzean etxonazat inoz erosiko!

Leire: (Adarra joten) Molestau al dok geure mutiko neusie? Kar kar kar.

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:
<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

**COOFICIALIDAD:
Si A es co de B,
B es co de A (I)**

Izenburu ipini dogun definizino hori entzun neutsan behin Jose Manuel Moreno Cabrera hizkuntzalariari. Hizkuntzalari handia, eta espainiar estaduko hizkuntza guztien bariantasunaren defendatzailea; horren hainbat hitzaldi dagoz sarean, baten batek entzun gura baditu (danak be sano interesgarriak).

Zer dala-ta ekarri dodan definizino hori orri honetara? Ba... ez dakit dakizuen, baina Eusko Legebiltzarrak 2016an 2/2016 Legea onartu eban. Bertan, 6. artikuluan, honakoa adierazoten da: "Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik, erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da". Hori

garatzeko, 2019an 179/2019 Dekretua emon eban, euskeraren eta gaztelaniaren erabilera instituzional eta administratiboak arautzeko Euskadiko toki-entidadeetan. Dekretuaren lehenengo printzipio gidariak argi azaltzen dau euskeraren erabilera normalari eta orokorri buruz egindako erreferentziek ezin dabela biderik emon beste hizkuntza ofiziala mugatzeko.

Ba... ez dakit dakizuen, Baina VOXek errekursoa jarri eban 2/2016 Legearen kontra, eta hain zuzen be, 179/2019 Dekretuan agertuten diran hainbat punturen kontra; eta eskatu eutsan EAEko Auzitegi Nagusiari puntu horreek guztiak balio barik ixteko. Auzitegi Nagusiak Konstituzino Auzitegiari eskatu deutso Lege horretan jasoten dan 6.2 artikulua konstituzinoagaz bat ete datorren aztertze, eta kontuak ez dauka itxura onik, badakigu-eta ze ideologiatakoak diran Espainiako epaileak.

ZERTZEAN



ANDONI SOLOZABAL

1

Erosketak egitera noa eta hartu dot kotxea dendatik berrehun metro luzera baitago nire etxea telebistatik ikusi ditut tigrea ta mapatxea baña ez dot sekula zapaldu aitariaren baratzea.

2

Neguan daukagu marrubia eta udan mandarina, Almeriatik datoz tomate, kipula, kalabazina Alemaniatic berriz esnea, yogurra eta gurina, ta askoz ere urrunagotik soja eta arto fina.

Gaia jarrita: "Km 0"

3

Urrundik barkuz dator janari ustez ekologikoa ona, polita eta merkea baña ez da logikoa jan behar da garaian-garaiko ta tokian-tokioa askoz hobea baita danontzat bertan ekoizitakoa.

4

Gu sekula ez gaude gustora beto zerbaiten egarri trapu zarrik ez dogu jantziko aurkitu ezean larri ta Txinan egindako erropak janzen doguz barri-barri ze baldintzatan eginda dauden arduratu barik sarri.

5

Asko emoten dosku soloak gauza ugari basoak eta gugandik jasotzen ditu atake ta erasoak baseritarrak estu ta larri dana dira arazoak ez dakit zer pentsauko leukien antzinako arbasoak.

6

Erantzukizunez hartu behar bakoitzak daukan ardura umeei etxean erakutsi, begiratu ingurura zaindu daigun itsaso zabala ta mendietako ura naturak ez gaitu behar baina guk behar dogu natura.

ago

BEGI TXINDORRA

“Gorbea”, Gorbeia “Altxorra”. Hedabideetan irakurri dodanez, aurten Gorbeialdea ezetutera emoteko ekitaldi ugari —bisita gidatuak, musikea, dastaketak...— antolatu dira “Gorbeia Altxorrek” izenpean. Bai, Gorbeialdeak altxor ugari gordeten ditu, sarritan balioan jartzen ez doguzanak. Lerro honeetan Gorbeia mendian bertan topau dodan “alxorretako” —komatxoaren artean jarrita— bat aitatuko dot.

Urri lehenengoaren 26an, Gorbeia Suzien mendi lasterketea zala eta, Igiriñao ingurura joan behar izan neban ibilbidetaren bidekurutzetako baten egoteko, Arratebaltzetan hain zuzen be. Bertara heltzeako, Arrabako landatik ninoala, mendizaleak gidatzeko jartzen diran hiru seinaleren aurretik igarotzerakoan, harritura geratu nintzan. Karteletako batek aterperako bidea adierazoten dau, euskeraz; beste batek, Pagomakurrera bidea, eta hirugarren batek, Gorbeia tontorerakoa. Azken honetan “GORBEA” irakurri daiteke. Ikusteagaz batera begiak mindu egin jatazan. Gorbeia Parke Naturalaren bihotzean eta kartelean: “Gorbea” Gorbeia ordez. Harrigarria, sinestezina eta... lotsagarria! Esan deustenez, kartel horrek urteak ei daroaz hor. Neure artean, zera pentsau neban: urteak badaroz, arduradunak ez dira konturatu edo bardin jakie? Huts bat egin daiteke, baina zuzentzeko denporea egon da. Suposatzen dot erantzukizuna Gorbeia Parke Naturala kudeatzeaz arduratzen diranengan egongo dala.

Gitxienez toponimia euskeraz idazteko gai ez bagara, gureak egin dau! Non eta Gorbeian bertan, “GORBEA”! Hor ikusten da gure hizkuntzeari emoten deusagun garrantzia.

Gorbeialdean eta batez be Arratian daukagun altxorrik preziaduena euskera da. Zoritxarrez, gure eskualdean be egoera gero eta larriagoan, zainketa intensiboen unidatean dagoan euskera.

Lerro honeetan aitatzen dodana anekdota bat baino ez da, baina gure hizkuntzeari, gure nortasunaren arimea dan euskerari emoten deusagun eta gure agintariak emoten deusien garrantziaren isla izan daiteke.

Mesedez, jagokonak kartela aldatu dagiala! Gorbeia gure alxorretako bat da, baina euskera Gorbeialdeko altxorrik baliosuena!

Jon Urubikurtu



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

begitu
eus

TOKA
Lekuzalari Agirre III
Igorreko gurek onart!

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatzen
Bidebarri 1. behe
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39
Kalejuru Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

ARTEA

Gastronomia eta kulturearen inguruko jaia antolatu dabe Artean

Urri bigarrenaren 16an izango da. Ekitaldia euskal tradizioaren arlo nagusi bitan oinarrituko da: gastronomian eta kulturean.

Erredakzioa

Merkadua, Maurizia Aldeiturriaga panderojoleari lotutako *Izan bagara* ikuskizuna, eta Artea eta Maurizia gaitzat hartutako bisita gidatu bi dagoz programauta egun horretarako. Andrek gastronomian eta kulturean izan daben lekuari balioa emoteko, Maurizia Aldeiturriaga izango da programako jardueri kohesinoa emongo deusena.

Merkaduan bertako produktuak egongo dira salgai eta txakolin, ogi eta ezti "mikro-dastatzeak eskainiko dira, goizeko hiru ordu-tegitan bananduta, 12 laguneko taldeentzat", antolatzaileek jakinarazo dabenaren arabera. Bertako produktuen zozketea egingo da 14:00etan.

Goizean zehar, bisita gidatu bi be egongo dira, Mauriziaren bizitza eta ibilbide profesionala erakutsiko dabenak.

Mauriziaren bizitza eta ibilbide profesionala be hartzean dau gaitzat *Izan bagara* ikuskizunak. Bertan Korrontzi taldearen folk musikea, jantzak eta herri-kirolak batzean dira.

Jarduera kultural eta gastronomiko horreek guztiak Arratia Kantuz taldeak gidatuko ditu.

Ekitaldiak, informazio gune bat, umeentzako sormen-gune bat eta moda-salmenta izango dauan Guikuri busa izango ditu. Arrastian Guikuri moda desfilea egingo da.

Bisitek eta dastatzeek 3 euroko prezioa izango dabe. Sarrerea pin-txo pote batez trukatu ahal izango da Arteako edozein tabernatan.

Gorbeiaiko Altxorak

Bizkaiko Landa Garapenerako

Gorbeialde Alkartek antolatu dau Arteako ekitaldia.

Ekitaldi hori, "Gorbeiaiko Altxorak" izenpean Gorbeia jomuga turistikoak bultzatutako bietako bat da. Izan be, Gorbeia jomuga turistikoak bere "altxor" nagusiak ezetuten emoteko jardunaldi bi aurkeztu ebazan urri lehenengoaren 22an: bata Araban egin zana urri lehenengoaren 25ean Zurbanon, eta bestea Bizkaian egingo dana, Artean hain zuzen be, urri bigarrenaren 16an.

Urri lehenengoaren 21ean, "Gorbeiaiko Altxorak" jardunaldien aurkezpena egin eben pre-saurrean. Han egon ziran honen barri emoten, Eider Ajuriagerra Arana, Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteko presidentea; Maria Begoña Ganzabal Zurbitu, Gorbeialdeko Koadrilako presidenteordea; Juan Felipe García Miravalles, Arabako Foru Aldundiko Enplegua, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko zuzendaria, eta Nire Hareazko Gazteluko Ania Verastegui Murga.

Eider Ajuriagerrak, "guretzat harro egoteko modukoa da oparizat hartzean doguna aurkeztea, atzetik talde lan handia egin behar izan dala ahaztu barik. Opari bat, Euskadiko Bihotz Berdearen onena kontzentratea erronka bat zalako eta lortu dogulako. Ziur gagoz Gorbeiaiko Altxorak ekitaldira hurbiltzen diran persona guztiek, bai gure jomuga ezetuten dabenean, bai bertan lehen aldiz barneratzen diranek, garana erakusten dauanagaz gozatu ahal izango dabela eta Gorbeia ezetuteko mila modu izango dabezala, ezinezkoa dalako paradisu natural, hurbil eta zentzu guztietatik

eskuragarri honetara ez itzultzea" esan eban.

Egitaraua

Urri bigarrenak 16, zapatua

11:00etatik 14:00etara, Gorbeiaiko ekoizle eta artisauen azokea.

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Gorbeia informazio puntua, Guikuri bus, moda salmentea eta umeentzako sormen txokoa.

11:00etatik 12:30era, *Artea eta Maurizia Aldeiturriaga ezagutzen* bisita gidatua. Alkarteko gunea: Gorbeia info puntua. Erreserbak www.gorbeiaeskadi.com webgunean.

12:30ean, 13:00etan eta 13:30ean, Ugabe txakolin eta Etxebarri baserriko ogi eta ezti dastaketak. Alkarteko gunea: Gorbeia info puntua. Erreserbak www.gorbeiaeskadi.com webgunean.

12:30ean, Arratia Kantuz, goiz musikala.

17:00etan, Guikuri moda desfilea. 19:00etan, *Izan bagara* ikuskizuna, jantza, herri-kirola eta folk musikea Korrontziren eskutik.

20:30ean, amaierara.



IGORRE

Kalera aterako ditue euren produktuak herriko merkatariek urri bigarrenaren 2an

Urri bigarrenaren 2an, urteroko Dendak Kalera, herriko merkatarien feria antolatu dau AME Igorreko alkarreak.

Erredakzioa

Zapatu horretan, erropak, oinetakoak eta beste hainbat gauza erosi ahal izango dira goizeko 10:00etatik 20:00ak arte, Urbietako futbol zelaiaren inguruan.

Aurten hamar denda batu dira Dendak Kalera ekimenera. Han egongo dira, umeentzako erropea saltzean daben denda bi, Sein eta Kili-kili; beste erropa denda bi, Klitz eta Polite; Maran kirolak eta Ainara kirolak, kirol dendak; Iratxo oinetako denda,

Menudo bicho bitxiak, Marrak pa-perdenda eta Decoración y Pinturas Igorre, etxerakoak saltzean dituan. Igaz ezin izan zan egin Dendak Kalera azokea. Martian ziran egitekoak COVID-19a dala-eta, dana zarratu eta etxean sartu ginduzan astegoienean. "Karpak eta dana prest egoan" dinoe AMEtik. Aurten, udabarritik udagoienara pasau dabe.

AME alkarreak antolatuten dituan ekimenak zabalik dagoz herriko merkatariek guztientzat eta parte hartzeako ez da derrigorezkoa alkarreko kide izatea.



IGORRE

EAJ-PNV lege-neurriak hartzea baloretan dabil Igorreko EH Bilduren kontra

Erredakzioa

Igorreko EAJ-PNVk, emon bako zerbitzuengaitik enpresei egindako ordainketak, ageriko egiteko exijiduten deuto Igorreko Udalarari.

Pandemian zehar udal zerbitzuetan jarduerarik egin ez eben enpresei, zerbitzurik eskaini

barik, osorik ordainduta egin ahal jakiezan ordainketa irregularri buruzko informazioa ezkutatzea leporatzen deuto EAJ-PNVk EH Bilduri. Hori dala eta, Igorreko EAJ-PNV EH Bilduren kontra lege neurriak hartzea baloretan dabil. Jeltzaleen arabera, COVID-19aren ondoriozko

eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko hartutako neurriak buruz, Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan adierazotakoaren aurkako ordainketea egin dau Udalak, eta Udaleko gobernu-taldeak uko egin deuto hori ageriko egiteari, gaiari buruz galdetu jakonean. "2020ko ba-

gilean, Igorreko EAJ-PNVk gaia mahai gainean ipini eban alarma egoera hasi zantetik egindako lehenengo Ogasun Batzordean, baita ondoren izandako batzorde guztietan be. Gainera, 2021eko zezelaren 8an, honako hau eskatu zan idatziz: enpresa horreei egindako ordainketen legezko-tasunari buruzko txosten juridiko bat, eta gai horri buruzko ebaztiak hartzeako ardura eben karguak identifiketea. Ordutik hona, Udalaren erantzuna "begiratzen ari gara" esaldian oinarritu da" salatu dau Igorreko EAJ-PNVk prentsa-ohar baten.

Enpresakaz negoziazioetan
COVID-19a agertutakoan, Illart Gumuzio Igorreko alkatearen arabera, "enpresen kontratuak mantendutea ebatzi zan, beharginak ez kaltetzeko. Beranduago atera zan zer pagau ahal zan eta zer ez ebazten eban dekretua". Gero enpresokaz negoziazioetan hasi ziralako dino alkateak likidazioan dekretura egokituteko asmoagaz, "jakinda konponduko zala, berme moduan fiantea dago eta". Gaia, urri lehenengo amaierako Ogasun Batzordeko gai-ordenean egongo zala esan eutsan BEGITURI alkateak.

ARTEA

Wikipedia elikatzeko tailerra eta ipar martxa ikastaroa antolatu ditu Kafrangak-ek**Erredakzinoa**

Udako etenaldiaren ostean, Arteako Kafrangak taldeak deituta, andra talde batek jarraituko dau Wikipedian sartzean gizarteari ekarpena egin deutesien an-drazkoen biografiak, batez be ingurukoak. Hori dala-eta, hileko lehen martitzenetan Arteako Kultur Etxean dagoan andren gelan batuko dira alkarregaz jarduteko. Urri bigarrenaren 5ean, 18:00etan Wikipedia elikatzen ikasteko tailerra emongo dau Marisa Barrenak. Barrenak, saria jaso eban 2020an, euskerazko Wikipedian andren presentzia handitzen egindako lanagaitik.

Arratian, Arteako Kafrangak Andra Taldeak ekin eutsan lanari martian, eta parte hartzeako prest dagozanak animau gura dabez. "Martian ekin geuntsan Kafrangak andra taldeko kideok Wikipedia elikatuten ikasteari.



Wikiemakumeok taldekoen proposamena onartu eta hilean behin alkartu gara Arratiako andrak bistarututeko asmoagaz. Ez da erraza izan hasikeran: hau *Wikidatan*, hau *Commonsen*, honeri erreferentzia... baina txiri-txiri bagoaz ikasten" azaldu deutesie

BEGITURI andra taldekoek. Harrezkerotik, Matxalen Legarreta Iza, Itziar Zabala Zurinaga edota Kotxepin Bengoetxea Etxebarria Wikipediaratu dabez. Maurizia Aldeiturriaga Zabalarena be atondu dabe, "abeslari espainiarra" eta antzekoak aldatuta.

Ipar martxea

Izaskun Bengoak emongo dau ipar martxako ikastaroa urri bigarrenaren 12an, izena emon dabenen andrei kirol arrakastatsu honen hastapenak irakasteko. Saio bi dagoz aurreikusita, bata 09:30etik 11:30era, eta bestea, 12:00etatik 14:00etara.

Izaskun Bengoa ezaguna da txirrindularitza egindako ibilbideagaitik. Atlantako 1996ko Olinpiar Jokoetan hartu eban parte, errepedeko txirrindularitzako munduko 5 txapelketatan, Italiako 3 Giroetan eta Frantziako Tour bitan. Eta 6 aldiz izan zan Espainiako txapeliduna.

Ipar martxea, bastoi berezi batzukaz ibiltea da. Gorputzeko giharren %90 erabilten dauan teknikea da eta edade eta baldintza fisiko desbardinetako jentek egin daike.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Argindarraren prezioa dala-eta, itzalaldia deitu dabe subiranistek**Erredakzinoa**

Urri bigarrenaren 8an, argindarraren etenbako gorakadearen aurrean protesta egiteko, Llotja de Marreko adierazpena sinatu eban Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako alderdi politikoez, tartean, EH Bilduk, 22:00etatik 22:30era, itzalaldia eta kazolajotea egitera deitu dabe.

Argindarraren neurribako garestitze horren atzean "iruzurra" dagoala dinoe. "Konpainia elektrikoak aberasten ari dira, herri-tarrak pobretzen, eta Espainiako

Gobernua ilunpean ixten ari da milaka etxe zaugarri" dinoe agiri baten. "Espainiako Estadia, PSOE eta PP, PP eta PSOE gobernau dituen alderdiek pribatizau, saldu eta eraitsi ebezan enpresa publikoak, sistema deserregulauz eta 'merkadua' esku itxiz. Horreez kontrolatan eta manipuletan dabe merkadua, alderdi bietako ordezkari eta ministro ohi askok beteten dituen administrazio konseiluetatik. Danek helburu bakarra partekatzen dabe: energia lango funtsezko ondasun baten kontura aberastea", salatu dabe.

Egoera honen aurrean, elektriken oligopolioari aurre egiteko, Euskal Herrian, Galizian eta Herrialde Katalanetan "fronte komun bat" egitea ezinbestekotzat jotzen dabe deitzaileek, eta energia subiranotasuna aldarrikatzen dabe.



ARTEA

ZEBERIO

Udalak zientzia eta teknologiagazko interesa biztuteko gazteen artean hitzarmena sinatu dau**Erredakzinoa**

Beste bederatzia udalari eta Elhuyarregaz sinatu dau STEAM sarearen hitzarmena. Zeberio STEAM, ingelesez, Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak berben akronimoa da. Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao, Urduña eta Zaratamo herriak batera, Elhuyarregaz sinatu eban hitzarmena, urri lehenengoaren 21ean Arrigorriagako udaletxean.

Erakunde eta eragileek sortutako STEAM sarearen helburua gazteen artean zientzia eta tek-

nologiagazko interesa biztutea da. Helburu horregaz, Nerbioi-lbazabal eskualdeko udalari, tailerrak, erakusketa bat eta topaketa bat antolatuko dabez, eta horretarako, 32.000 euro bideratu ditue Elhuyar eta Eusko

Jaurilaritzaaren laguntzeagaz.

Zeberion, *Kriminologia* tailerra egingo da zementariaren 6an, 13an, 20an eta 27an, 18:00etatik 20:00ak arte. Izen emotea zabalik dago urri bigarrenaren 21era arte udaletxean.

**Erredakzinoa**

Umeak bertan olgetan ibilteko, bedar artifiziala, harea-leku bat eta zugatz bi ipini ditue. Igaz, ate bat zabaldu zan haur-eskolan, atzeko patiora emoten dauana, eta aurtan atondua barrizta egin dabe umeek olgetako beste leku bat euki dagien. Lanok urri lehenengoaren erdialdean amaitu ziran.

"Pasau dan ikasturtean ikusi genduan katamar ibiltzen diran umeentzako aproposagoa dala bedar artifiziala. Gainera, harea-leku bat olgetako eta landareak be ipini dira. Zugatz bi dagoz udan kereizpea izateko" azaldu deutso BEGITURI Gorka Beitia zinegotziak.



Arteko haur-eskoleak, 0 eta 2 urte bitarteko 10 umerentzako kapazitatea dauka. 2021-2022 ikasturtea 8 umegaz hasi da eta urtailean beste bat da hastekoa.

Oraineko Urri ikastetxeak

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



ZEANURI

Irakurketa feminista eta ahalduntze tailerrak antolatu dauz Mazalak

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 7an hasiko da *Deskubritu gaitzen ahalduntzearen bidean* tailerra Zeanuriko Mazala andra taldeak antolatuta. Eta oingo hamabostaldirako be, hilaren 15erako, aurtengo bigarren irakurketa feminista tailerra antolatu dau andra taldeak. Biak Kultur Etxean izango dira eta izena alde aurretik emon behar da mazalaandratalde@gmail.com helbidean.

Aitziber Hormazaren eskutik, *Deskubritu gaitzen ahalduntzearen bidean* tailerrean parte hartzean dabenek, euren biografiaren gainean egingo dabe hausnarketea bizi izandakoak diran horretan izan dauan eragina ikusteko. Tailerra eguenetan izango da, 17:30etik 19:30era abenduaren 2ra arte.

Uxue Alberdi Zeanurin

Uxue Alberdi *Dendaostekoak* liburuen egileak berak gidatuko dau irakurketa feminista tailerra. Partaideek liburua irakurrita izan behar dabe. Aurtengorako irakurketa feminista saio bi euki ditu programauta Mazalak. Lehenengoa urtailean egin zan. Orduan Kattalin Miner idazlearen gidaritzapean, partaideek



Miren Amurizaren *Basa* eleberria landu eben.

Dendaostekoak

1970eko hamarkadan, Uxue Alberdiren amak eta izekok Pitxitxu dendea ipini eben Elgoibarren. Dendariek, besteak beste, zelan bizi izan ebezan, grebak, manifestazioak eta ETaren atentadu bi kontetan dau liburuak. Baita andra dendari bi honeen bizitzek askatasunaren alde egindakoa be.

Uxue Alberdi Estibaritz (Elgoibar, 1984) idazle eta bertsolari ezagun eta saritua da. Beste sari batzuen artean, *Kontrako ezarririk* saiakereagaitik Euskadi Literatura Saria jaso eban 2020an. Lehenago be, 2016an, jaso eban Euskadi Literatura Saria, haur eta gazte literaturan *Besarkada* lanagaitik.

ARTEA/IGORRE

Konzentrazioak egin ziran Artean eta Igorren, "Bizi osorako zigorrik ez" lelopean



Erredakzioa

Sare euskal presoen aldeko mobimentuak, Euskal Herriko 50etik gora herritan, elkarretaratzek antolatu ebazan urri lehenengoaren 18an, "Bizi osorako zigorrik ez" lelopean. Artean eta Igorren, ehun lagunetik gora batu ziran konzentrazioan, euskal presoen giza eskubideak defendiduteko eta "salbuespen neurriak" salatuteko.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gaueko hirurak arte ostatuak zabalik egotea baimendu dau Jaurlaritzeak

Urri lehenengoaren 18an indarrean sartu zan 38/2021 Dekretua, urri lehenengoaren 17koa, Lehendakariarena.

Erredakzioa

Honek, jarduerak goizaldeko hirurak arte luzatutea, diskotekak eta gaueko aisialdiko establezimientuak zabalduetea eta aforo batzuk handitzea baimentzen ditu. Ez ordea, lonjak eta gazte-lokalak. Diskoteketan maskarea jantzita egin behar da jantzan.

Merkataritza, gizarte eta kultura jarduera guztietarako zarratuteko ordutegia 03:00ak arte luzatzea ahalbidetzen dau Dekretuak. Jardueretan, gehienez, ehuneko 75eko eukiera izango dabe lokal eta instalazio guztiek. Edozein motatako ekitaldietarako esparruetan gehienez 1.500 persona bildu ahal izango dirala barrukaldeetan, eta 1.800 persona kanpoan ezartzen dau. 3.000 lagunetik gorako eukiera daukien esparru zarratuetan, gehieneko eukiera ez da ehuneko 40tik gorakoa izango, eta esparru zabaletan, ehuneko 60tik gorakoa. Ostalaritza eta jatetxe establezimientuetarako eukierearen ehuneko 75 ezartzen da barrukaldeetan. Barran edo zutunik konsumiduteko debekuari eusten jako.

Diskotekak eta gaueko aisialdiko gainerako establezimientuak barriz zabalduete baimena emoten dau Dekretuak, 18 hilabete zarratuta egon ostean. Ha-ta guzti be, gehieneko eukiera barrukaldeetan, %50a da eta galarazota dago barran edo zutunik konsumidutea. Jantzan egiteko pista maskareagaz bakarrik erabili daiteke.

Barrukaldeetan egiten diran museoetara, erakusketa aretoetara, jolas zentroetara eta turismo zentroetara taldeek egiten dituen

bisiten gehieneko kopurua 20 personara arte handitzea ebatzi da. Barruko instalazioetako kirol jarduerak be, 16 personako taldeetan egituratu ahal izatea ahalbidetzen da.

Administrazio publikoek eta enpresek aurrez aurreko jardunera itzultzea ebatzi ahal izango dabe urruneko lanari edo telelanari buruzko araudiak arautzen ez dituan lanpostu guztietan. Lan eremu bakoitaren tipologia eta baldintza bereziak kontuan hartu beharko dira, eta oinarrizko prebenzino neurriak mantenditu.

Lonjak, gazte-lokalak eta antzekoak barriro zabaldu ahal izateko 16 eta 29 urte bitarteko adin-tartean txertaketak jarraibide osoaren %85 gaindituta egotea ipinten dau baldintza moduan Dekretuak.

IGORRE

Igorren izango da Arratieko I. Gazte Egune hilaren 16an

Asier Abrisketa

Goizetik hasita, 09:30ean Kiñu Gaztetxean zerbitzauko dan armozuak emongo deutso hasikerea zapatuari. Detaileak oindino zabaldu ez badira be, berbaldiak, bazkaria, poteoa eta hurreko taldeen estreinuak kontzertuak izango dira zapatuan, ardatz.

Pandemiak baxotza bere etxean konfinatzeraren hartu ebazan gazteak, hau atzean itxita, baxotza bere herriatik urten barik egoteko. Baina urte barriak aukera barriak be ekarri ebazan eta herriko isolamentua apurtuta Arratia eta Zeberioko gazteek, barriro be, alkarlanean hasteko konpromisoa hartu eben.

Eragile sozial, politiko eta kulturalak batzeako asmoagaz jaio zan orduan Hainbatera dinamikea. Inguruko gazte militanteek norabide bat topau behar ebela eta, lehenengo pausua inguruko gazte guztiak batutea izan zan, uda osoan ibili dira zeregin horretan. Holan, urri bigarrenaren 16an ospatuko da lehenengoz Arratieko Gazte Egune. "Badoa, bagara, badator!" lemapean, aurrera saltu bat izango da eskualdeko gazte mobimentuarentzako.



IGORRE

Garben Azokea egongo da hilaren 10ean

Erredakzioa

Igazko etenaldiaren ostean, bueltan da eskualdean urte gehien deroan merkaduetako bat; Garbeko Azokea, hain zuzen be. Bertan, 10:00etatik 13:30era, baserriko produktuak eta artisautzakoak egongo dira salgai.

Hogeta hamar ekoizle inguruk eroango ditue azokara barazkiak, frutak, lorak, gaztaia, ogia eta artisautza produktuak. Gehienak Bizkaikoak, baina baita kanpoko baten bat be. Udagoiena da urte sasoirik ugariena baserrian eta bistan egongo da Garbeko salmahaietan.

Aurreko urteetan, merkaduagaz batera, herri-kirol erakustaldiak edo beste ikuskizun batzuk egin izan dira, antolatzaileen esanetan, baserri giroa auzora ekarteko, baina aurten, jente pilaketarik ez egoteko ez dala ekitaldirik egingo azaldu deutso BEGITUARI Xabier Altube antolakuntzakoak. Dana-dala, datorren urtean, merkadua girotzeko ekitaldiren bat egiteko gogoia agertu dau Altubek.

Sasoian sasoiakoa

Garbeko Azokea 1975ean sortu zan eta Bizkaiko antinakoenetakoa da. Hasikeran, ganadu azokea zan, baina laster baserriko produktuak saltzeako azoka bihurtu zan, eta ortuariak hartu eben protagonismoa.

Gizarte asko aldatu da 46 urte honeetan eta behin baino gehiagotan desagertzeko arriskuan egon da, baina oin arte, irautea lortu dau. Sasoiakoa egokituta, sasoiakoa produktuak eskaini eta baserri giroa herrira ekartea beti lortu dau urte honeetan guztietan. Aurten be, sasoi honetako baserriko produkturik onenak erosteko aukerea egongo da Garben.

OPORRETAKO ARGAZKI LEHIAKETEA

Areatzako Nagore Agirrebeitiak irabazi dau Oporretako Argazki Lehiaketean

Deltebre argazkiak eroan dau lehenengo saria. Aurten, 46 argazki aurkeztu ditue BEGITUREN irakurleek argazki lehiaketara, igaz 67 izan ziran. Irabazleak astegoiien bat landetxean izango dau saritzat. Bigarren saria Iker Zamakonaren Ustrukuen txonboa argazkiarentzat izan da.



Ustrukuen txonboa, Iker Zamakonak bialdutakoa argazkia. Bigarren saria.



Ribadesellan. Aitor Arnaiz.



Espeto bat, Manilvan. Mari Carmen Zulueta.



Euritan dantzan. Miren Begoña Idigoras.



Sekuoien basoa. Ainara Olazabalaga.



Ainsako kanpina. Aizpea Etxebarria.



Gorputza, Maite Arrizabalagak bialdutakoa argazkia. Edu Salazar.



Umeak udan. Miren Begoña Idigoras.



Asturiasen. Aitor Arnaiz.

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gitxitua
Begiko tentsinoak
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Goider 666 58 20 06

Pozeta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Gorbeiaiko

ALTXORRAK





Urriak 16

11:00-12:30
"Artea eta Mairuzia Aldeiturriaga ezagutzen" bisita gidatua

- Elkargunea: Gorbeia Info puntua
- Plazak: 20
- Erreserbak: gorbeiauskadi.com
- Prezioa: 3 €

12:30-13:00-13:30
Destaketa: UGABE TXAKOLINA

- Elkargunea: Gorbeia Info puntua
- Plazak: 12 (3 saio)
- Prezioa: 3 €
- Erreserbak: gorbeiauskadi.com

12:30-13:00-13:30
Destaketa: ETXEBARRI BASERRIA

- Elkargunea: Gorbeia Info puntua
- Plazak: 12 (3 saio)
- Prezioa: 3 €
- Erreserbak: gorbeiauskadi.com

12:30
ARRATIA KANTUZ goiz musikala

17:00
GUIKURI moda desfilea

19:00
IZAN BAGARA ikuskizuna, dantza, herri kirola eta folk musika KORRONTZIREN eskutik

20:30 Amaiera

ARTEA (Bizkaia)

11:00-14:00
Gorbeiaiko Ekoizle eta Artisauen AZOKA

11:00-16:00
GUIKURI BUS, moda salmenta

11:00-14:00 / 16:00-20:00
Gorbeia Informazio puntua

Haurrentzako sormen txokoa

ZOZKETA
Parte hartu eta gozatu!
BERTOKO PRODUKTUAK

Ordua: 14:00

Informazio gehiago eta erreserbak: gorbeiauskadi.com











TXIRRINDULARITZEA**Julen Zuberok bere hamargarren Titan Desert-en parte hartuko dau**

Julen Zubero Aldekoa Lemoako txirrindulariak parte hartuko dau Titan Desert 2021 lasterketan hamargarrenez.

Erredakzinoa

Lasterketea, urri bigarrenaren 10 eta 15aren bitartean jokatu da Marokon. Basamortutik doan lasterketa gogor honetan, lemoaztarraren helburua izaten da etaparen bat irabaztea, baina lasterketa amaierako podiumera be igon daiteke, igaz Saudi Arabian jokatu da Titan Desert Serieko lasterketan egindako moduan. Josep Betalu, lasterketea lautan irabazi dauan txirrindulariak be emon dau izena, eta izan daiteke Zuberoren aurkari gogorrenetako bat.

Igaz, Saudi Arabian jokatu zan Titan Desert-eko lasterketan, Zubero podiumean izan zan hirugarren eginda. Bigarren etapa irabazi eban eta lasterketaburu izatera be heldu zan. Betaluk irabazi eban karrera.

Mendia, dunak eta erreka bat Titan Desert lasterketea, kirol probatik harago, abentura osoztat daukie partaideek eta paraje ederrak eta kanpamentua konpartiduten daben lehiakideen arteko laguntasuna ez dira faltetan. Orientazio eta erresistentzia handiak behar dira lasterketa hau amaituteko; izan be, mendietatik, duna artean, eta basamortutik joa-

ten da bidea.

Sei etapa izango ditu aurtan lasterketeak. Lehenengoak, urri bigarrenaren 10ean jokatu danak, 102 kilometroko ibilbide zirkularra dauka Boulmane Dades herrian hasi eta amaituta. Paraje ikusgarrietatik pasetan dan mendi etapa da, gogorra, igoera eta jeitsiera askogaz. Gogorra bada lehenengo eguneko, oindino gogorragoa izango da hurrengoa. Boulmane Dades-etik Ait Yahyara doa 127 km-ko ibilbidea eta mendi handi bi igon beharko dira, lasterketako etapa nagusia dan honetan. Hirugarren egunekoak apurtxo bat samurragoa dirudi, papelean behintzat. Ait Yahyatik, Tafaoutera 99 km dagoz eta basamortuko lehenengo etapa da, nahiko laua eta pistetatik doana. Hilaren 13an, Tafaoute-tik Erg Chebbi-ra joango dira partaideak eta hareadun zati batzuk topauko ditue. Hurrengo egunean, bosgarren etapa, Erg Chebbi-ren duntatik joango da, 107 km-ko etapa zirkularra. Atzenengo egunean Erg Chebbi-tik Maadi-ra bitartean dagozan 74 km-ak egingo ditue lasterketan jarraituten daben txirrindulariek. Mendiak, harriak, harea eta erreka handi bat be zeharkatu beharko dabe helmugara heltzeako.

partiduan zehar eta lehia gogorra egon zan partiduaren lehen zatian. Amaia Aldaik hartu eban partiduaren pisua gorrie jagokiegan. Partida bardinduta egon zan hamaikako bardinketara arte. Hortik aurrera gauzak aldatu ziran. Aurreko koadruetan lehia ikusgarria egon arren, dimoztarraren eta Olatz Arrizabalaga, Emakume Master Cup Txapelketan palmarezik handiena daukan pelotariaren artean, Arrizabalaga nagusitu zan. "Sano pozik geratu nintzan egindako partiduakaz; penea atzenengo irabazi ezin izana, Andreari txapel hau irabazten lagundu gura neutsan eta. Baina dana emonda galdu genduan, edo hori da nik daukadan sensazioa, behintzat. Partida konfiantza handiz jokatu neban, lepora bota neban eta nahiz eta txapela eroan ez, gustura ibili nintzan" azaldu deutso BEGITU Aldaik.

PELOTEA**Amaia Aldaik ezin izan eban Errioxako San Mateo Txapelketako txapela jantzi****Erredakzinoa**

Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirre nagusitu jakien Amaia Aldaik eta Andrea Capellan-eri urri lehenengoaren 25ean, Logroñoko Adarraga pelotalekuan jokatu da finalean.

Amaierako markagailuak (13-22) alde erakutsi arren, partida nahiko orekatua izan zan; izan be, bardinketa asko egon ziran

SOKATIREA**Galder Gobantes tiralariak parte hartu eban Munduko Sokatira Txapelketan**

Getxon, Faturako errugbi zelaian jokatu zan urri

lehenengoaren 16tik 19ra Munduko Sokatira Txapelketea.

Erredakzinoa

Galder Gobantes zeberioztarrak, Euskal Herriko Selekzioagaz eta Goiherri Erandioko taldeagaz hartu dau parte, antolakuntza lanetan ibilteaz gainera. Ez da po-

diumera igon, baina, antolakuntzan zailtasun handiak gaintu dituela eta pozik dago egindako lanagaz.

Zazpi domina irabazi ebezan euskal sokatiralariak Lur gaineko Munduko Txapelketan, urrezko

lau eta brontzeko hiru. Kluben artean, aitatu behar da Laukizko Gaztedi kluba; izan be, urre bi eta brontze bat eskuratu ebezan. Erandioko Goiherriko brontzea irabazi eban 23 urte azpiko gizonetartan. Euskal Selekzioak, Basque Country izenpean, urrezko bi eta brontzeko bat irabazi ebezan. Holan, dominen sailkapenean bigarren egin dau Euskal Herriak, Suitzaren ostetik.



Galder Gobantes, bigarrena eskoietik hasita.

FUTBOLA**Arratia lider da lehen partidu biak irabazita****Erredakzinoa**

Gizonezkoen Arratia futbol taldeak ligako lehen partidu biak irabazi ditu. Urri lehenengoaren 25ean Ermuaren kontra jokatuakoa 0-2 irabazi eban. 6 puntugaz lider da Arratia. Datorren partidu Retuerto Sport taldearen kontra jokatu dau Urbietan urri bigarrenaren 2an, 15:30ean.

Arratia B taldeak otera hilaren 25ean hasi eban ligan Galdakao B taldearen kontra eta 0-1 irabazi eben Igorrekoek. Datorren partidu Etxebarri B taldearen kontra jokatu dabe Urbietan urri bigarrenaren 2an, 17:45ean.

Lemoako Harrobi taldeak be zapatuan ekin eutsan ligan eta 3-1 irabazi eban Montefuerte taldearen kontra hiru puntuak eskuratu. Datorren partidu Atxulaur taldearen kontra jokatu dau Orozkon urri bigarrenaren 2an, 17:00etan.

Andrazkoen Arratia taldeak deskantsua euki eban urri lehenengo atzen astegoienean eta aurreko partidu 2-1 galdu eban Oiartzunen kontra. Datorren partidu urri bigarrenaren 3an jokatu dau Urbietan Mutilvera taldearen kontra eguerdiko 13:00etan.

HERRI-KIROLAK**Harriti andra taldea partaide bila dabil****Erredakzinoa**

Harriti, harri-tirako andrazkoek osotutako herri-kirol taldea partaide bila dabil. Zortzi andrak osotuten dabe taldea eta hasi barri dan ikasturtean, gehiago izatea gura dabe.

Entrenamentuak Artean egiten ditue, astean behin, iluntzean. Ez dabela kirolari profesionalik behar dinoe Harritikoek, gogoa nahikoa dala. Izan be, taldean sano giro ona sortzean da eta euren helburuetako bat sarea egitea eta alkarlanean jardutea da. Entrenamentuetan parte hartzeako,

676 231 003 telefonora idatzi daiteke.

Harri-tira

Harriti 500 kiloko harriari tira egiten deutan giza proba taldea da. Baserrietan gero eta idi gitxiago dagoenez, herri-kirol hau ez galtzeako, idi-proben alternatiba moduan giza probak sortu ziran; idien orde, jente talde batek harriari tira eginez.

Harriti 2013an sortu zan. Andra talde sano gitxi dagoz Euskal Herriko harriari tira egiten deutan eta Bizkaian bakarra.



Harriti taldea. Artxiboko argazkia.

MENDIA

Mendi lasterketen ligan dago Lemoatx Trail

Zemendiaren 21ean jokatuko diran Lemoatx Trail

lasterketa biak, 24 kilometrokoa eta 16 kilometrokoa,

Bizkaiko Mendi Lasterketen III. Ligaren barruan

egongo dira; maila absolutuan 24 kilometrokoa eta

Junior mailan 16koa.



Erredakzioa

Mendi martxa bi be egongo dira; bata 24 kilometrokoa, lasterketearen ibilbidetik joango dana eta Lemoatx Txiki izeneko 8 kilometroko beste martxa bat. Zemendiaren 15era arte emon daiteke izena online lasterketetan edo martxetan parte hartzeako.

Lemoatx Txiki mendi martxea, Lemoatxako lubakietatik pasauko da, "PRko lubakietatik pasauko da baina ez da ibilbide bardina. 24 km-tako ibilaldiaren zati bat da. Aurten egiten dan bigarren urtea da" azaldu deusie BEGITURI Lemoatx Trail antolatuten dauan Ganzabal Mendi Taldetik. Hama sei urtetik beherako partaideak, heldu bategaz joan beharko dira martxan parte hartu ahal izateko, eta heldu horrek idatziz ipiniko

dau nortzuk diran bere ardura-pean dagozan adin txikikoak doralak hartzerakoan.

24 kilometroko mendi martxakoak izango dira lehenengoak urtetan, 08:00retan; ondoren, 09:15ean, lasterketa nagusiko partaideak urtengo dira. 10:30ean, 16 kilometroko lasterkarien txandea izango da eta 11:00etan, Lemoatx Txiki, 8 kilometroko martxea abiatuko da.

Liga

Absolutu mailako Ligako lehenengo lasterketea bagilaren 5ean jokatu zan Galdemesen. Lemoakoa ligako zortzigarrena izango da maila honetan eta beste lasterketa bi gehiago egongo dira ligea amaituteko. Junior mailan barriz, sei lasterketa dira; Lemoakoa, laugarrena.

Kili-Kili
Kantxa eta Funtzioak

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 61

ASESORIA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Beluzen dago jakitea *Beluzen dago proiektuak*

- Salmentan zein alokairuan
- Lurak (irakitea, landak, basak...)
- Etebidizkoak (surok, baserak, etxak...)
- Garaioak
- Lanari komertzioak
- Pabiloiak...
- Balonoiak

Irakin berriak erakitzeko
Etebidizkoak
Aktibitate-proiektuak

- Garaio diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Unibertsitate Agirre 23, Leioa - Iparre
Nagusiak: 94 671 51 89 - 656 94 21 31
94 671 51 89 - 656 94 21 31
www.arratia.com

MENDIA

Onditz Iturbe igorreztarra, bigarren, Gorbeia Suzien 2021 mendi lasterketan



Onditz Iturbe, Denisa Dragomir eta Lide Urrestarazu.

Erredakzioa

Onditz Iturbe igorreztarra Gorbeia Suzien mendi lasterketa nagusiko podiumera igo zan, 31 kilometro eta 2.400 metroko desnibel positiboa daukan ibilbidea 3:45:02 denporan eginda, Denisa Dragomir errumaniarraren atzetik. Lide Urrestarazuk osotu eban andrazkoen podiuma. Laugarren izan zan Oihana Azkorbebeitia eta bosgarren egin eban Oihana Kortazarrek. Zaid Ait Malek-ek irabazi eban lasterketea gizonezkoetan, eta Ander Iñarrak eta Ben Kimtaik

egin eben bigarren eta hirugarren, hurrengo hurrengo. Laugarren Damien Humbert frantziarra izan zan eta bosgarren Asier Larruzea.



Zaid Ait Malek lasterketearen irabazlea.

HERRI-KIROLAK

Tubi txapelaldun izan zan Diman jokatuako Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketan

Urri lehenengoaren 25ean jokatu ziran Diman Bizkaiko

Lasto Jasotze eta Aizkorako Bigarren Mailako txapelketak.

Erredakzioa

Lasto altxetan Jose Martin Bustinza "Tubi" eta Jon Loiola dimoztarrek eta azkoran Julen Mendieta lemoaztar beteranoak hartu eben parte.

Lasto Jasotze Txapelketeagaz hasi zan herri-kirol emonaldia. Gipuzkoako Txapelketea jokatzen ibili

dan eta barriro Bizkaiko txapelketan parte hartu dauan Tubik sasoi onean dagoala erakutsita eta minutu bitan 24 jasoaldi eginda eroan eban txapela. Bigarren izan zan Beñat Amade 22 jasoaldi eginda eta hirugarren Jon Loiola 18 jasoaldigaz. Tubik Bizkaiko hainbat txapel, Gipuzkoako bi eta Euskal Herriko 10 ditu.



Lehenengo kontrola eta Gorbeiaiko tontorra lasterketako lider izaten zapaldu ebazan Onditz Iturbek, baina gero Denisa Dragomirrek, munduko serietako fabrikatzaileak, hartu eutsan aurrea. "Beherezkoetan eta zatirik teknikoetan ez naz oso ondo moldatzen eta goranzkoan ondo egin gura neban. Horregaitik, dana emon eta apustu egin neban hasikeratik" azaldu deusie BEGITURI Onditz Iturbek. Estrategiak ondo funtzionau eban eta bigarren egin eban arratiarrak Oihana Azkorbebeitia eta Oihana Kortazar mendi lasterkari handien aurretik.

Aurten Gorbeia Suzien lasterketea puntuagarria izan da Skyrunner World Series-en eta Dragomirrek kopa hori lortu eban Zeanuriko lasterketan. Errumaniarra mendi lasterkari profesionala da.

Kros denporaldia

Gorbeia Suzien-en bigarren egin arren, Iturbe ez dabil jokatu munduko kopa. Urri bigarrenaren 3an, Araiako Mitxarro mendi lasterketeagaz amaierara emongo deusio mendi lasterketa denporaldiari, kros denporaldiari ekiteko.

"Gipuzkoan oso gustura ibili naz baina atzen aldiaren ez da txapelketarik egin, batez be jentirik egon ez dalako, bakarrik ibili naz han eta ebatzi dot barriro Bizkaia etortea, berez dimoztarra naz eta Bizkaioa nazanez aukerea euki dot parte hartzeako" adierazo eutsan Tubik BEGITURI saioa amaitu ostean. "Pozik egoteko moduan nago, badakit aurten ondo ibili nazana baina ez neban espero 24 altxaldi egiterik, 25ekoa hor bertan dago, egia esan 25eko marka egin neban garaian 10 urte gixiago nebazan, eta aurten 24 egin dodaz, hortxe hur ibili naz" gehitu eban.

Azkoran txanda bitan jokatu eben txapelketea, lehenengoan Beñat Lekue eta Marco Nevado ibili ziran eta bigarrean Julen Mendieta, Daniel Lopez eta Aritz Oregi. Txapela Beñat Lekue larrabetzuarrak bereganatu eban eta Julen Mendieta atzen postuan amaitu eban.

ERAKUSKETEAK

Euskal Herriko Ahaide Nagusiak erakusketea antolatu dau Zeberioiko Udalak**Erredakzioa**

Ermitabarriko San Antonio ermitan egongo da ikusgai urri bigarrenaren 12ra arte, barikuetan 17:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domeketan 11:00etatik 14:00etara. Erakusketeak banderizo eta jauntxoan jatorria, bizimoduak, torretxeak eta erabilten eben indarkeria kontetan dau, besteak beste, jauntxoek bizitza politiko, sozial eta ekonomikoa zelan baldintzatu eben erakutsiz.

Erakusketan, 12 minutuko dokumental bat, bost informazio panel eta 10 ilustrazio ikusi dai-

tekez. Dokumentala, ahaide nagusien eta torretxeen gainekoa da. Informazio panel eta ilustrazioetan barriz, hiru Lurralde Historikoko Ahaide Nagusi batzuk agertzen dira. Erakusketara doazenek aukerea izango dabe bertan ikusten danaren gaineko azalpenak audio bidez jasoteko. Audio horrean, personaion sinopsia eta gertaera garrantzitsuenak azaltzen dira.

Jaun feudalei, Ahaide Nagusi esaten jakien Euskal Herrian eta gure historiaren zati hori ulertuten lagunduten dau erakusketa ibiltari honek.



KOTXEPIN

Bibitxa umorez betetako antzerki ez konbenzionala ikusi ahal izango da Kotxepinen**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 9an, 19:00etan, Nerea Gartzia eta Ainhoa Etxebarria aktore ondarrutarrek, eurek sortu, antzeztu eta zuzendutako *Bibitxa* umorezko ikuskizuna eskainiko dabe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Sarrerak alde aurretik erosi behar dira www.lemoa.net Udal webgunean.

Ikuskizuna 2021eko martian estreinau eben. Diziiplina ugari buztartzen dira lan honetan: jantza, *performance*-a, inprobisazioa, bakarriketak eta testu adostua. Emonaldi bakotxa desbardina da eta publikoa jokoan sartzean saiatzen dira; antzeztan parte-hartzailea egiten, hain zuzen be. Helduentzako gomendatutako antzerkia da.



ONDAREA

Ondare irisgarria eta inklusiboa daukie gaitzat Ondarearen Europako Jardunaldiek

Giza Eskubideen Adierazpen Unibersalak, esparru kulturean parte hartzeako persona guztiek daukien eskubidea aitortzen dau 27. artikuluan eta hori izan da gaitzat hartu dauana Ondarearen Europako Jardunaldien aurtengo edizinoak, "Guztion ondarea, guztiok parte" lelopean.

Erredakzioa

Zeanurin, hilaren 9an eta Areatza eta Diman, 23an egingo dira gaiagaz lotutako ondarea erakusteko jarduerak.

*Zeanuriko Andra Mari*ko erretratu. XV. mendean marrazten hasi zen komikia izenpean antolatu dau Gorbeialde Landa Garapen Alkarteak bisita gidatua Aina Martinez Matia, erretrataran interpretazioa egin dauan

Ikusmira Ondarea enpresako kidearen eskutik. Parte hartu



Zeanuriko Andra Mari eleizako erretratu nagusia.

gura dabenek izena emon behar dabe 94 612 26 95 telefonoan eta parrokan bertan batuko dira arrastiko 18:30ean. "Irisgarritasuna ez da kontzeptu moderno. Mendeetan zehar artelanak erabili dira idea konplejuak ulertu arazoteko edo irakurten ez ekienei istorioak kontetako. Jasokundearen erretratu, ezagutzak eta jakintzak igortzeko gaitasun horren froga da" dinoe antolatzaileek.

ONDAREA

Jentilak Diman-ek mitologiaren gaineko jai herrikoiki eta erreferente izan gura dau**Erredakzioa**

Txumulueta Kultur Elkartek antolatuten dauan *Jentilak Diman* indartzen doala uste dau Manu Aurrekoetxea Txumulueta kideak. Aurten, Arratia mailako ume eta gazteen lehenengo Argazki eta Bideo Lehiaketea eta Jentilen eta sorginen gaua antolatu dabez. Argazki lehiaketan Iraide eta Uxue Urkiza Dimako umeak izan dira irabazleak eta bideo lehiaketan, Peru Etxebarria Miranda. Jentilen eta sorginen gauean sano giro berezia sortu zala dino Aurrekoetxea. Publikoan berrehun bat lagun pasatxo egon ziran, holango ekintzen "egarritz".

Urri lehenengoaren 25ean izan zan jentilen eta sorginen gaua. Edade guztietako 30 jentil eta sorginek egin eben agerrea. Frontoira heldu ziran jantzea hasi zan. Gazte Barri jantza taldekoek *Erre zenituzten* Xabi Solanoren kantuari egingo koreografia jantzu eben. Eta azkenik, Artaungo Jentilbaratza Kultur Elkartekoek Barandiaranek jasotako hiru ipuin antzeztu ebezana. "Ipuin guztietan giotze lana, kokapena, jatorria, kondaira... Barandiaranen erreferentzia emonda, *Marimunduko* antzeztuz... itzela, bikaina

izan zan. Jentilbaratza alkarteko kideak ziran aktoreak. Aktore amateurak, baina profesionalen parekoak" dino Aurrekoetxea. Izan be, Txumulueta kideak egiten diran ekintza kulturalak duinak eta ondo landuak izan behar dira, eta profesionalak ez badira be, profesionaltasunera hurreratzen diranak.

Horrek alde aurretiko lana eskatzen dau. Arratiako eskola eta guraso alkartekaz kontaktuan egon dira, "eskolara joan gara azaltzen zer daukagun, eskolatik informau da, guraso alkartek be zaindu doguz...". Lehiaketaren antolakuntzan Txumulueta alkartekaz batera guraso alkartea egon da eta Jentilen eta sorginen gauean, Gazte Barri jantza taldea. Urte asko daroe jentilen inguruan pedagogia egiten eta *Jentilak Diman* antolatuten, eta azpiegitura bat be badaukie darduko Txumulueta: jentil

erropak, sorgin erropak eta abar.

Mendian eta herrian

COVID-19aren inguruko neurriek eten arte, txandaka egiten ziran *Jentilak Diman* ikuskizun desbardinak udabarrian: urte baten, Baltzolan eta hurrengoan herrian, herri osoa hartuz. Igaz herrian egitea toketan zan, baina bertan behera geratu zan. Aurtengoa be ez da ohikoa izan, udabarrian egoerak ez ebalako ensaioak eta jentearen hurbiltasuna baimentzen. Gauza "puntuala" izan da, ekintzaren beraren aurretik hainbeste kontaktu eskatzen ez ebana.

Datorren urtean, mendikoa ala herrikoa zein egingo dan ez daukie oindino Txumulueta kideak. Aurtengoaren balorazio onagaz geratzen dira, helburu pedagogiko eta dibulgatiboak ekintza kultural duin eta landu bi honek bez bete diralakoan.



BERTSOLARITZEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketa bat jokatu da Igorren

Urri bigarrenaren 9an, 17:00etan, izango da Lasarte Aretoan.

Erredakzioa

Han, Ander Ucelay Aristi, Gara-zi Navarro Ugarteburu, Gorka Pagonabarraga Agorria, Ibai Amillategi Ormaetxebarria, Julen Erezuma Arzanegi eta Mikel Goiriena Larrazabal neurtuko dira. Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Durangon hasiko da urri bigarrenaren 3an eta abenduaren 18an jokatu da finala Bilbon.

2020ko maiatzean jokatzekoa zan Bizkaiko Txapelketarako sailkapen fasea atzeratu egin behar izan zan eta 2020ko urri lehenengoan jokatu zan. Bizkaiko Txapelketa bera be atzeratu egin behar izan zan, COVID-19a zein indarrean egozan neurriak zirala-eta momentuko egoera ona ez zalako. Azkenean, 2021eko udagoienean egingo da txapelketa.

Sei kanporaketa jokatu dira, 2018an baino bat gehiago, eta bakotxean sei bertsolarik hartuko dabe parte. Hiru finalurrekoetan be sei bertsolari lehiatuko dira. Finala 8 bertsolarik jokatu dabe: finalurretako hiru irabazleek eta puntuazinoz bost lehenengoek.

Sarrerak modu bitan erosi daitezke; internet bidez www.bertsosarrerak.eus atarian edo txarteldegian ez badira agortu. Txarteldegia 16:00etan zabalduko dira; finalean, 15:00etan.

Arratiarrak

Txapelaren lehian ibiliko dan ber-

tsolari arratiar bakarra Iñaki Iturriotz Zuluaga da. Kanporaketa urri bigarrenaren 30ean jokatu dau Eloorrioko Arriola Antzokian, 17:00etan, Aitor Arrutia Azkueta, Igor Galarza Intxausti, Imanol Arrutia Azkueta, Imanol Urija Albizuri eta Peru de Pedro Larrearen kontra. Antolakuntzan barriz, badago arratiar gehiago.

Holan, talde antolatzailean Arantzazuko Igor Menika Bengoetxea eta Igorreko Illart Gumuzio Larrazabal dagoz. Menika, gai-jar-tzaile taldeko partaidea be bada.

Krisalida urratuta

Igaz egin behar zan txapelketa eta horregaitik, itxaronaldiari erreferentzia eginez, aurtan, txapelketa-

ren mezua, "Krisalida urratuta" da. "Tximeletak larban lez egon bagara be, ez da izan beldarrak zintzilik lez lotan edo geldi egon garalako. Indar barriak hartu eta ilusinoak elikatzen egon gara, urtenbide barriak hausnartzen. COVID luputzar honek tartetxoren bat emoten izan deuskun bakotxean sarea apurtu, animoak puztu, eta kanpora urte-ten izan dogu ilusinoz eta gogoz gainezka. Baina gure ilusinoak argia lez ibili dira izetu eta amatau. Tximeletak lez, krisalidatik urten eta gure hego koloretsuak zabaldu gura doguz, eta hegaz egin arbolarik arbola, euskal kulturearen eta bertsogintzearen lorak polinizauz" azaldu dau talde antolatzaileak.



Xabier Arauzo BFAko Euskara Zuzendaria, Belate Olabarria Bizkaiko Bertsozale Elkarteko presidentea, Ione Narbaiza txapelketearen arduraduna eta Lorea Bilbao Bizkaiko Euskara, Kultura eta Kirol diputadua.

ZINEA

Lara Izagirreraren *Nora* filma Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Nora filma igaz egon zan Donostiako Zinemaldian, eta aurtengo urri lehenengoaren 3an estreinau zan zine aretoetan. Juxtu hilabete bat beranduago urri bigarrenaren 3an, 18:45ean, Igorreko Lasarte Aretoan ikusteko aukerea egongo da. Lara Izagirreraren filmak *Nora* protagonistak egindako bidaia bat kontetan dau. Ane Pikaza, Hector Alterio, Naiara Carmona, Ramon Barea, Klara Badiola, Loli Astoreka, Iñigo Aranbarri, Itziar Ituño,

Joseba Usabiaga eta Kepa Errasti aktoreek emoten deutsee bizitza *road-movie* honen pertsonaiei. Musikea Paula Olazek eta Pascal Gaignek alkarregaz egindakoa da.

Ane Pikazak egiten dau *Nora* protagonistearen papela. *Nora* bere aitagaz bizi da eta aitita hil ostean, Euskal Herriko kostaldetik bidaia egingo dau. Bidaian izandako bizipenak kontetan dauz filmak. Lara Izagirre zuzendari eta gidoigilearen bigarren fikziozko film luzea da hau. Lehenengoa, *Un otoño sin Berlin*, izan zan 2015ekoa.

KULTUREA

Blues musikea, poesia errezitaldia eta Oktoberfest Areatzako The Quiet Corner-ean

Erredakzioa

Sano estilo desbardinatoko hiru ekitaldi antolatu ditue The Quiet Corner tabernan urri bigarrenaren lehenengo hamabostaldirako: Tobacco Road taldearen kontzertua; Poesia hegalaria taldearen errezitaldia eta Oktoberfest.

Tobacco Road Gasteizko blues bikoteak bere atzen lana *Tobacco Road por un tubo* aurkeztuko dau kontzertuan. Txitxo Amili eta Antonio Azaceta musikariek osotuten dabe taldea eta blues klasikoak eta eurek sortutakoak jotzen dabez.

Poesia errezitaldia hilaren 7an,

19:00etan izango da. Poesia hegalaria taldeko Iker Allur musikariak lagunduta, Irune Elexpek, Pablo Cabañasek eta Ana Juezek irakurriko ditue hainbat poema; Espainiako Poesia Saria irabazi dauan Miren Agur Meaberren batzuk, tartean.

Hilaren 9an ostera, Oktoberfest, urri bigarreneko festa ospatuko dabe Cornerrean. Ingrid Kuschik "Lilofee"k, beste musikarier gitarraz eta akordeioagaz lagunduta, Alemaniako "edateko kantua" eskainiko ditu 20:00etatik aurrera. Oktoberfest, 1810etik ospatuten da Munich-en eta munduko jai herrikoirik jentetsuenen artean dago.

DUNBA

Mendexa Abentura Parkea

Ikasle batzordeko partaideok urtekerea egin dogu Mendexara.

Arratia BHiko, Enara Gallastegi Barrenetxea, Txomin Gorrotategi Gallego eta Amets Bilbao Bollar

Aurtengo urri lehenengoan Agenda 20-30, hezkidetza taldea eta euskera batzordeko ikasleak Mendexa Parkera joan gara. Urtero hiru talde honeetako ikasleek urtekera bat egingen dabe, baina igaz, eguraldi txarra zala-eta aurtengo urri lehenengora atzeratu behar izan genduan. Aurtan be ez dau hain eguraldi onik egin

azkenean, baina suertea izan dogu ez daualako euri handirik egin.

Goizean urten ginan autobusean Mendexarantz eta han, lehenengo, azalpen labur batzuk jaso genduzan. Gero, amesa eta kaskoa jantzi eta lehen zirkuitua probetan abiatu ginan. Zirkuitu desbardinak egozan parkean, bat umeentzat zan, beste bat segurtasun ekipametuaren erabilpena ikasteko eta hori ikasi eta gero berdea, urdina, eta gorria, berdea errazena eta gorria zailena, egozan.

Hasteko probau genduan zirkuitua ekipamentua erabilten ikasteko zan eta bertako monitoreek lagundu euskuen. Ha amaitu eta gero bakotxa bere eritmorra beste zirkuituak probetan hasi ginan, errazenetik gaxenera. Momentu guztietan bertako langileak inguruan ebilzan laguntza behar bagenduan, lagunduteko. Eta oso ondo portau ziran gugaz. Gainera zeozer ez bagenduan ondo ulertuten edo ez bagenkian zer egin ez eukien arazorik barriro azalduteko.

Ibilbide bakotzak erronka desbardinak eukazan: sareak, zubiak, tirolinak, tunelak, eskalatzeko hormak eta bestelakoak. Gainera, altuera hartzerakoan bista parebakoak egozan eta bertatik Lekeitioko hondartza ikusi zeinkean. Horrezaz gainera, ikaskideakaz momentu polit bat pasau eta naturaz gozatzeko aukerea izan genduan. Ohartu baino lehen heldu zan autobusa hartzeako ordua eta ikasle batzuk azken zirkuitua egiteko denpora barik geratu ziran. Baina buel-

tetako ordua zan eta barriro umore onean autobusa hartu genduan.

Aurtan Agenda 20-30, hezkidetza taldea eta euskera batzordeak batera lan egingo dabe kurso osoan zehar, hilero batzartuz eta ekintza desbardinak aurrera eroanez. Hiru proiektu honeen helburuak batera gauzatu dira. Honek dira horreetako batzuk: erreka magalak garbitzea, ortua eta jardina atontzea, euskera eguneko ekintzak egitea, bingo musikatu edo-eta pertonen arteko bardintasuna lortzeako jarduerak egitea.



AGENDA

**URRI BIGARRENAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

10:00etatik 12:30era edo 12:30etik 15:00etara, andren eta gizonen arteko bardintasunaren inguruko formazioa Idoia Lekueren eskutik. Herritarrak arreta zuzena daukienen galderak erantzun. Udaletxean.

Udagoien osoan zehar, onddoen garrantzia goraiatzeko hainbat aholku emongo dira Gorbeia Parke Naturaleko atsedenguneetan.

19:00etatik 22:00etara, gaztelekua zabalik barikuro.

Helduentzako zeramika ikastaroa Saioa Larrearen eskutik martitzenetan 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilabetea materiala barne. Interesdunak 615 731 182 telefonora deitu.

**ARRATIA**

Berbalagun ekimenean parte hartzeako informazioa 662 199 033 telefonoan, arratia.berba@ae.eus edo praktikatu.eus/blog/arratia helbideetan. Euskeraz praktikau gura izan ezker, eta nogaz praktikau euki ezean, izena emoteko aukerea.

ARTEA

Hilaren 26an egongo dan oin eta behatzen estetika zerbitzurako hitzordua hartzeako epea zabalik. Udaletxean eta 94 673 92 05 eta 94 673 92 17 telefonoetan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura. Aforo mugatua.

17:00etatik 19:30era, ludotekea zabalik, astelehenetik barikura. Aforo mugatua.

DIMA

10:00etan, Parke bio-osasungarriak.

IGORRE

14:00etatik 21:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Eguaztenetan 12:30etik 21:00etara. Aurrez aurreko arreta emongo da.

Urri bigarrenaren 31ra bitartean Bonodenda kanpaina martxan. AMEK eta Igorreko Udalak bonu kopurua 1.800etik 3.000ra igon dabe. 16 urtetik beherakoak be bonuak eskuratu ahal izango dabez.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean. Liburuak hartu, eskatu eta bertan irakurteko aukerea dago.

Zemendiaren 21ean egingo dan Lemoatx Trailen izen emotea zabalik

rockthesport.com eta kronoak.eus webguneetan.

Hilaren 4ra arte, Berri Txarrak taldearen gaineko *Dardara* dokumentala ikusteko izen-emotea www.lemoa.net udal webgunean.

Hilaren 31ra arte, aurkeztu daitezke argazkiak Lemoako X. Argazki Lehiaketarako kultura@lemoa.net helbidean. Gaia: Lemoa.

Abenduaren 12ra arte, Egunean Behin tribial estiloko joko digitalean hartu daitezke parte. Lemoaztarrak batu ahal dira lehiaketara aplikazioan 204F9E kodea sartuta.

17:30etik 20:30era, barikuetan eta zapatuetan 17:00etatik 21:00etara gaztelekua zabalik.

16:30etik 19:00etara, astelehenetik barikura ludotekea zabalik.

ZEANURI

Atzen eguna. Udalak lan anitzetako ofizial lanpostua atera dau. Izena 14:00ak arte arte emon daitezke. Hautagaiek iturgintza, zurgintza, enkofratze, igeltserotza eta lorezaintza ezagutzak izan beharko dabez. Xehetasun gehiago urri lehenengoaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean dagoz eskuragarri.

ZEBERIO

Zeberioko II. Argazki Lehiaketea.

Ura eta egurra gai nagusi moduan hartzean dabezan argazki horizontalak, ez panoramikoak www.zeberio.net gunera igon edo info.zeberio@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira. Gai bakotxean boto gehien jasoten dauzan argazkilariak bi personentzako bazkaria jasoko dau sari lez.

17:00etatik 19:00etara, liburutegia zabalik.

17:00etatik 20:00etara, *Euskal Herriko Ahaide Nagusiak* erakusketea Ermitabarriko San Antonio ermitan.

Zemendian izango dan Kriminologia ikastarorako eta Ballet-erako izen emotea zabalik ez badira plazak bete. Udaletxean.

**URRI BIGARRENAK 2
AREATZA**

20:00etan, Tobacco Road taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

19:00etatik 23:00etara, gaztelekua zabalik zapaturo.

ARTEA

19:00etan, Jesus Muñiz Petralandaren eskutik, Elexabeitiko baseleizearen bisita gidatua.

IGORRE

10:00etatik 20:00ak arte, Dendak Kalera herriko merkatarien feria Urbietan futbol

zelaiaren inguruan.

20:00etan, Idoia Asurmendiren kontzertua Goiko plazako frontoian. Lasarte Aretoan eguraldi txarra bada. Konbiteak www.igorrekultura.blogspot.com helbidean eskatu behar dira.

ZEANURI

12:00etan, Gure uztaren dastaketa Sagarna aurrean, neguari begira hazien trukea eta konsumo taldearen aurkezpena.

ZEBERIO

11:00etatik 14:00etara, *Euskal Herriko Ahaide Nagusiak* erakusketea Ermitabarriko San Antonio ermitan.

**URRI BIGARRENAK 3
IGORRE**

16:30ean, zinea, *Space jam: aro berrian*; 18:45ean, *Nora* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

11:00etatik 14:00etara, *Euskal Herriko Ahaide Nagusiak* erakusketea Ermitabarriko San Antonio ermitan.

**URRI BIGARRENAK 4
AREATZA**

17:00etatik 19:30era, ludotekea zabalik astelehenetik barikura.

BEDIA

16:30etik 19:00etara, hilaren 22ra arte, *Udan be irakurten* argazki erakusketea, liburutegian.

Enplegua bilatzen dabizenei lagunduko deutse Udal Liburutegiak kurrikuluma eroan ezker, ekintzak heldu ahala bideratzen.

Bediako andren omenez puntua egin arbola bat janzteko. Etxetik zein eguaztenetan, 16:30etik 19:00etara eskoletan alkarregaz bufanda handia egin arbola baten ipinteko. Urtaillaren 14ra arte bakotzak egindako zatiak batuko dira; urtaillaren 19tik martiaren 2ra arte, eskoletan batu zatiak josteko; martiaren 8an, aukeratutako arbolearen ipiniko da bufandea.

**URRI BIGARRENAK 5
ARTEA**

18:00etan, Marisa Barrenak gidatutako Wikipedia elikatzeko tailerra Andren Gelan. Kafrangakek antolatuta.

**URRI BIGARRENAK 7
AREATZA**

19:00etan, Poesia hegalaria taldearen poesia errezitaldia The Quiet Corner tabernan. Errezitatzaileak: Pablo Cabañas, Ana Juez eta Irune Elexpe. Iker Allur-en musikeagaz.

LEMOA

19:00etan, Berri Txarrak-en gaineko *Dardara* dokumentala eta barriketaldia Marina Lameiro zuzendariagaz eta Izkander Fernandez kazetariagaz Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

17:30etik 19:30era, abenduaren 2ra bitartean, eguenetan, *Deskubritu gaitzen ahalduz zearen bidean* tailerra Aitziber Hormazaren eskutik Kultur Etxean. Aldez aurretik izena emon mazalaandratat@lemoa.net helbide elektronikoa edo 652 516 159 WhatsAppen.

**URRI BIGARRENAK 8
ARTEA**

17:30ean, jubiladuen alkarteak antolatuta talo tailerra plazan.

ZEBERIO

17:00etatik 20:00etara, *Euskal*

Herriko Ahaide Nagusiak erakusketea Ermitabarriko San Antonio ermitan.

**URRI BIGARRENAK 9
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, bisita arkeologikoa: Parketxean dagoan arkeologia erakusketea bisitatu eta gero Larrederreko moltso arkeologikora igon, Mendiganako trikuharria eta Sustrigiko aire zabaleko kokalekua ikustera, Juan Carlos Lopez Quintana arkeologoaren eskutik. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

Areatzako merkadua. 10:00etatik 12:00etara plazan. Egindako erosketa guztiek tokiko produktu loteen zozketan parte hartuko dabe.

20:00etan, Lilofee-ren kontzertua. Oktoberfest The Quiet Corner tabernan. Tabernetako kantuak kantaiko ditue.

ARTEA

Hilaren 12ra arte, bioeraikuntza eta autosufizientzia energetikoaren gaineko ikastaroa. Basoa etxean. 350 euro, ostalua eta jana barne. Informazio gehiago eta izen emotea info.bioeraikitzen@gmail.com edo 646 742 241 eta 620 195 411 telefonoetan.

DIMA

09:30ean, plazan. Andraizeak antolatuta, Bermeoko kofradiara sareginak ikustera. Arrain enkantea eta produktuen dastaketea, bazkaria Bermeon, Arrastia Bermeoko kaleetatik.

IGORRE

17:00etan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketea Lasarte Aretoan. Bertsolariak: Ander Ucelay Aristi, Garazi Navarro Ugarteburu, Gorka Pagonabarraga Agorria, Ibai Amillategi Ormaetxebarria, Julen Erezuma Arzanegi eta Mikel Goirieta Larrazabal.

LEMOA

19:00etan, *Bibitxa* Ainhua Etxebarria eta Nerea Gartziairen umorezko ikuskizuna Kotxepin Kultur Etxean. Sarrerak www.lemoa.net webgunean.

ZEANURI

18:30ean, Andra Mari eleizako XVI. Mendeko erretroula. Bisita gidatua. Gorbeialde Landa Garapen Alkarteak antolatuta. Andra Mari eleizan.

ZEBERIO

11:00etatik 14:00etara, *Euskal Herriko Ahaide Nagusiak* erakusketea Ermitabarriko San Antonio ermitan.

**URRI BIGARRENAK 10
IGORRE**

Nekazaritza eta eskulangintza azokea. 16:30ean, zinea, *Patrulla canina: la película*; 18:45ean, *Adiós idiotas* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

11:00etatik 14:00etara, *Euskal Herriko Ahaide Nagusiak* erakusketea Ermitabarriko San Antonio ermitan.

**URRI BIGARRENAK 12
ARTEA**

09:30etik 11:30era edo 12:00etatik 14:00etara, *Ipar martxa* ikastaroa Izaskun Bengoagaz. Kafrangak Andra Taldeak antolatuta.

**URRI BIGARRENAK 15
ZEANURI**

18:30ean, *Irakurketa feminista* tailerra Uxue Alberdigaz. *Dendaosteakoak*. Kultur Etxean.

**GIZONAK
ETA
PAREKIDE
TASUNA****Gizonentzako ikastaroa
Lemoako Kotxepin Kultur Etxean**

Andra eta gizonen arteko parekidetasuna ez dala andren kontua jaubetuta, gizarte osoarena baino, Lemoako Udalak Hiruki Larroxaren eskutik, *Gizonak eta parekidetasuna* lau saioko ikastaroa antolatu dau. Kotxepin Kultur Etxeko Arlanpe gelan izango dira eskolak 10:00etatik 13:00etara, urri bigarrenaren 2an, 16an, 30ean eta zementiaren 13an.

Partaideek, euren bizitzetako zapalkuntzen jatorriak eta zergaitiak; gizonen egunerokotasuneko pribilegioak; gizonak emozinoak eta komunikazioa, eta zer egin daikien gizonak parekidetasunaren alde landuko dabe saio horreetan.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

MINTZAPRAKTIKA SAIOAK

Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako laguntzat). Telefonoa: 635 750 097.

LANA

LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezkerre deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DOT

Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikauak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Interesdunek deitu 657 707 725 telefonora.

LAN BILA

Adineko personak zaintzean ibilitako andra kubatarra lan bila dabil. Barruko neskame edo bestela. Telefonoa 688 849 089.

SALTZEAN DOT

Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta

prezio sano onean. Altuera 2,10 metro, zabalera 2 metro eta sakonera 40 zentimetro. 615 708 238.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modelo, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Nora** filma ikusteko.

Beatriz Arza (Igorre)
Ibon Iza (Dima)



2 Bizkaiko Bertsozale Elkartek emondako bina sarrera Igorreko bertso saiorako.

Jon Bengoetxea (Igorre)
Ibon Ozerin (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 19 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean medu
sem
e-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 36
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

BIZARGINAK
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Baxarra egin eta buzkunduen dogu
Telf. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com
Telf.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

begitu

GARBEEKO AZOKA

Igorre

2021eko urriak 10

10:00-13:30
Garbeko aparkalekuan
Eguraldi txarra eginez gero kiroldegian eta eskolako aterpean

IGORREKO UDALA

Gorbeialde
Landa Garapenerako Alkartea
Asociación de Desarrollo Rural

2. KANPORAKETA

IGORRE

Urriaren 9an, zapatua, 17:00etan, Lasarte aretoan

Andel Ucelay Aristi, Garazi Navarro Ugarteburu, Gorka Pagonabarroga Agorria, Ibai Amillategi Omaetxebarria, Julen Arzanegi Erezuma eta Mikel Gorienea Larrazabal.

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO

BERTSOLARI TXAPELKETA

20-21

Bizkaia **bbk** **IGORRE** **beritu**

LEHOA 946 31 44 06 ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI 946 51 05 99 BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

HIKOKI

filippini **Nilfisk** **JCB** **MANITOU** **CTX CONTAINEX** **TeknoDiktika** **HIKOKI** **POWER PRODUCT GENEVEY** **MASTER** **INSTANT UPRIGHT**